

P. PENS. CAJA LABORAL MONETARIO

2025EKO LAUGARREN HIRUHILEKO TXOSTENA

2025aren amaieran bete egin dira munduko BPGd-aren hazkundeari buruz ekitaldi-hasieran zeuden aurreikuspenak. Azken datuak ez baditugu ere, BPGd-ak % 3,2tik gorako hazkundea izan du, 2024koaren oso antzekoa, baina azken 3 urteetako batezbestekoa baino zertxobait txikiagoa. Esan dezakegu 2025. urtea positiboa izan dela, batez ere bigarren seihilekoan ondo bideratu direlako lehen seihilekoan Trumpen Administrazioak muga-zergak iragarri ostean sortutako distortsioak. Izan ere, iragarpen horrek kolokan jarri zuen 2025erako hazkundea, bereziki AEBko ekonomiarena, murrizketa handiak ekarri baitzituen estimazioetan: % 2,3tik % 1,4ra igaro ziren. Eurogunean ere murrizketak egin ziren zenbatespenetan, baina ez hain handiak: % 1ekoak beharrean, % 0,8koak izan ziren. Hala ere, bigarren seihilekoa ona izan da. Aurreikusitako murrizketarik gehienak leheneratu egin dira: AEB % 2 inguru hazi da, eta eurogunea, % 1,4. Beraz, hasieran esan dugunez, badirudi bete egingo dela duela urtebete erabili genuen hazkunde-aurreikuspena. Hazkunde globala sendoa bada ere, desberdintasun handiak daude blokeen artean. Indiak du ekonomiarik dinamikoena (% 6,5), eta, ondoren, Txinak, haren hazkundea % 5,0 baino zertxobait txikiagoa izan baita. Txinan, higiezin burbuilak, AEBren muga-zergen inpaktuak eta beste arrisku batzuek ez dute motelaldia bizkortu. Hain zuzen ere, AEB da hirugarren eragilea, % 2,0ko hazkundea izatea lortu baitu. Datu horrekin, 2024arekin alderatuta gehien mantsotu den ekonomia da -2024an, % 2,8 hazi zen haren BPGd-a-. Azkenik, beste ekonomia handi batzuek oztopo izaten jarraitzen dute; adibidez, Erresuma Batuak (% 1,4), Japoniak (% 1,1, nahiz eta bizkortu egin den iazko % 0,1aren ostean) eta euroguneak (% 1,3). Eurogunean, zehazki, herrialdeen arteko desberdintasunak esanguratsuak dira: Espainiak % 2,9ko hazkundea lortu du; Alemaniak, Frantziak eta Italiak, ordea, oso hazkunde txikia izan dute (% 0,2koa, % 0,7koa eta % 0,4koa, hurrenez hurren).

Inflazioari dagokionez, espero zen moderazioa izan dugu: % 4,0tik % 3,0ra jaitsi da. Alabaina, aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da jaitsiera, muga-zergak indarrean jartzeak eta horrek bereziki ondasunetan eragindako gorakadak AEBn sortu duen erresistentzia dela eta. Eurogunean, espero zenaren ildotik joan da inflazioa (% 2,0koa izan da apiriletik); hots, aurreikuspenak oso egonkorak izan dira.

ARAUDI ALDAKETAK

Hiruhilekoan ez da araudi aldaketarik izan.

PLANAREN DATU IDENTIFIKATZAILEAK

- . DGSFPen Erregistroan F1513 zenbakiarekin inskribatutako Pentsio Fondoa.
- . Atxikitako Pentsio Plana: P. PENS. CAJA LABORAL MONETARIO. Erregistro-zenbakia: N4296
- . Sozietate Gestorea: CAJA LABORAL PENSIONES S.A., G.F.P., PS José M. Arizmendiarieta s/n 20500-Arrasate/Mondragón (Gipuzkoa).
- Erregistro-zenbakia: G0217
- . Gordailuzaina: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, PS Jose Maria Arizmendiarieta S/N 20500-Arrasate/Mondragón (Gipuzkoa).
- Erregistro-zenbakia: D0194
- . Gutxieneko inbertsioa: 30,05 euro.
- . Entitate Ikuskaria: ERNST & YOUNG S.L.
- . Errenta finko eta diru merkatuko aktiboetan inbertitzen duen Pentsio Plan Indibiduala. Caja Laboral Pensiones SA GFPk kontratua sinatu du Caja Laboral Gestión SA SGIICrekin, eta horren bidez Caja Laboral Gestión SA SGII C arduratzen da pentsio-funtsen finantza-aktiboak kudeatzeaz. Lotutako eragiketen barne prozedurei buruzko informazioa, ondorengo helbidean dago eskuragai:
<https://www.laboralkutxa.com/pdf/planes/OpVinculadasRICCLPensionesEus.pdf>
- . Entitate Kudeatzaileak bere Jokaera Araubidean jasotako prozedurak ezarri ditu interes-gatazkek ekiditeko eta lotutako eragiketak Erakundearen mesedean soilik eta merkatuko baldintza berdinetan edo hobeagoetan egiten direla bermatzeko.
- . Euskadiko Kutxa, fondoaren Entitate Gordailuzaina, Entitate Kudeatzailearen bazkide bakarra da eta, indarreko araudiak betez, bi entitateen artean jarduerak bereizteko irizpideak ezarri dira.
- . Gastu edo komisio kontzepturen bat %0,00ko portzentaiarekin adierazten denean, portzentai borobildua denez, txostenean jasotzen ez den gasturen bat kobratzea gerta daiteke.

PLANAREN BILAKAERA

ALDIA	ERRENTAG. GARBIA	GASTUAK GUZTIRA
4. Hiruhilekoa	0,33	0,13
2025eko metatua	1,63	0,54
2024 Urtea	2,81	--
Azken 3 Urteak	2,50	--
Azken 5 Urteak	0,97	--
Azken 10 Urteak	0,14	--
Azken 15 Urteak	0,16	--
Azken 20 Urteak	--	--

KOMISIOAK ETA GASTUAK

KOMISIOAK ETA GASTUAK	ALDIA			METATUA		
	ONDAREAZ	EMAITZEN G.	GUZTIRA	ONDAREAZ	EMAITZEN G.	GUZTIRA
Zuzeneko kudeaketa	0,11%	--	0,11%	0,45%	--	0,45%
Zeharkako kudeaketa (2)	0,00%	--	0,00%	0,00%	--	0,00%
Gordailu zuzena	0,01%	--	0,01%	0,05%	--	0,05%
Zeharkako depositua (3)	0,00%	--	0,00%	0,00%	--	0,00%
Planak eragindako gastuak (4)	0,01%	--	0,01%	0,04%	--	0,04%

(*) POSIZIO-KONTUAREN GAINEAN BENETAN JASANDAKO EHUNEKOAK
(3) ZEHARKAKO KUDEAKETA-TASAK: EZ DAGO APLIKAGARRI
(3) ZEHARKAKO GORDAILU-KUOTAK: EZ DAGO APLIKAGARRI
(4) PLANARI KOBRATUTAKO GASTUEN BANAKETA: AUDITORIA ETA BESTE ZERBITZU PROFESIONAL BATZUK.

ZORROAREN ERAKETA MERKATU BALIOAN

BALIOAREN DESKRIBAPENA	25/12/31ko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
ERRENTA FINKOA	11.481.354,78	100,00%
REPO	1.700.000,00	14,81%
BO. ESTADO ESPAÑA 0% 270131	1.955.700,00	17,03%
BO. ESTADO ESPAÑA 1,30% 261031	2.489.781,51	21,69%

DATU OROKORRAK

	EGUNGO HIRUHILEKOA	AURREKO HIRUHILEKOA
Ondarea	12.110.424,53	12.176.420,94
Partaidetza kopurua	1.962.601,52	1.979.800,42
Likidazio-balioa partaidetzagatik	6,170598	6,150327

MERKATU ARRISKUA

Errenta Finkoaren Iraupena	0,89
Errenta Aldakorraren %	--

GASTUAK (4)	ALDIA	METATUA
Finantza-analisiko zerbitzuak	0,00%	0,00%
Erreferentzia-indizeak erabiltzea	0,00%	0,00%
Iraunkortasunaren azterketa	0,00%	0,00%
Auditoria eta beste zerbitzu profesional batzuk	0,01%	0,04%
Funtsa eta Plana Kontrolatzeko Batzordea	0,00%	0,00%
Inbertsio-eragiketen likidazioa	0,00%	0,00%
Finantza-berrikuspen aktuariala	0,00%	0,00%
Planak bere gain hartutako beste gastu batzuk (5)	0,00%	0,00%

(*) POSIZIO-KONTUAREN GAINEAN BENETAN JASANDAKO EHUNEKOAK

BALIOAREN DESKRIBAPENA	25/12/31ko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
BO. ESTADO ESPAÑA 1,5% 270 430	3.006.895,48	26,19%
BO. ESTADO ESPAÑA 1,95% 26 0430	2.328.977,79	20,28%
ZORROA GUZTIRA	11.481.354,78	100,00%